



Konexioak_Prest

Deialdia | Convocatoria
2026-2027

ksigune

WWW.KSIGUNE.EUS

KSIgune gara.

Ongi etorri! Hau da **Konexioak**: Ikasleak eta irakasle-ikertzaileak Euskadiko Arteen, Kulturaren eta Sormenaren profesionalekin eta enprekin elkarlanean jartzen dituen programa.

Lankidetzaz hori bultzatzeko, Konexioak programak eskaintzen ditu: **3 deialdi (_PREST, _LAB eta _HAZI)**, programan parte hartzen duten pertsonekin eginiko **topaketak (_TOPA)** eta zure proiektua garatzeko etengabeko laguntza zerbitzua.

Nahi duzu zure gradu edo master amaierako proiektua egin eta praktikara eraman?

Horrela bada, interesgarria irudituko zaizu proposamen hau.

Eta ideia freskoei esker zure produktuak, zerbitzuak eta prozesuak hobetzeko gogoia duen kultura- edo sormen-sektoreko enpresa edo profesionala bazara, ere bai!

Somos KSIgune.


Te damos la bienvenida a **Konexioak**, el programa para que estudiantes y personal docente e investigador colaboren con profesionales y empresas de las Artes, la Cultura y la Creatividad en Euskadi.

Para apoyar esa colaboración, Konexioak cuenta con **3 convocatorias (_PREST, _LAB y _HAZI), encuentros** con las personas participantes del programa (**_TOPA**) y un servicio de apoyo continuado para el desarrollo de tu proyecto.

¿Quieres realizar tu proyecto de fin de grado o máster y llevarlo a la práctica?

Entonces, esto te interesa.

Y, si eres profesional o empresa del sector cultural y creativo con ganas de mejorar tus productos, servicios y procesos gracias a ideas frescas de la mirada del talento joven, también.



➤ Ezagut ezazu Konexioak_Prest

Deialdi honek **laguntza ekonomikoa** emango dizu hasierako faseetan dagoen edo izaera esperimental nabarmena duen **zure proiektua bultzatzeko, bai eta plataforma bat ere**, zure kontaktu sarea handitu eta emaitzak zabaltzeko.

Zure proiektua izango da **gradu edo master amaierako lan bat**, modu berri batean lagunduko diena Arteen, Kulturaren eta Sormenaren profesionali edo enpresei, beren prozesuak, produktuak edo zerbitzuak berritzen.

Proiektu akademiko aplikatu bat da, ko-kreazioan eta alor akademikoaren eta profesionalaren arteko ezagutza trukean oinarritua .

➤ Conoce Konexioak_Prest

Esta convocatoria facilita **apoyo económico para el desarrollo de tu proyecto** en fases tempranas o con un componente experimental elevado, **y te ofrece una plataforma para ampliar tu red de contactos** y difundir los resultados.

Tu proyecto será un **Trabajo de Fin de Grado o Máster** que, de manera novedosa, ayude a profesionales o empresas de las Artes, la Cultura y la Creatividad a innovar sus procesos, productos o servicios.

Se trata de un proyecto académico aplicado, basado en la co-creación y el intercambio de conocimiento entre el ámbito académico y el profesional.



➤ Zuretzat da...

1/ Ikaslea bazara

Ikasten ari bazara unibertsitate fakultate batean, unibertsitateari atxikitako prestakuntza ikastegi batean edo goi mailako arte irakaskuntzen eskola batean.

Zure gradu edo master amaierako lana izan daiteke Arteekin, Kulturarekin edo Sormenarekin lotura zuzena edo zeharkakoa duen titulazio batekoa.

➤ Es para ti...

Si eres estudiante

Estás cursando estudios en una Facultad universitaria, un centro con formación adscrita a la Universidad o una Escuela de Enseñanzas Artísticas Superiores.

Tu Trabajo de Fin de Grado o Máster puede ser de una titulación que esté relacionada directa o transversalmente con las Artes, la Cultura o la Creatividad.

2/ Profesionala edo enpresa bazara

Zure jarduera nagusia kokatzen da Euskadiko sektore hauetako batean edo batzuetan:

Kultura:

- Arte Eszenikoak
- Ikusizko Arteak
- Ikus-entzunezkoak eta Multimedia
- Liburua eta Prentsa
- Musika
- Kultura Ondarea

Sormena:

- Arkitektura
- Artisautza
- Diseinua
- Gastronomía Sortzailea
- Hizkuntzaren Industriak
- Moda
- Publizitatea
- Bideojokoak

Parte hartu ahal izango dute era askotako profesionalak edo enpresek, antzinatasuna edo dimentsioa gorabehera (estudio sortu berriak, ibilbidea luzea duten enpresak...), baldintza batzuk betez gero:

- Alta hartuta egotea kulturaren edo sormenaren sektoreri lotutako jarduera epigrafe batean.
- Proiektuak lotura zuzena izatea haien jarduera profesionalarekin.

Si eres profesional o empresa

Tu actividad principal se enmarca en uno o varios de los siguientes sectores en Euskadi:

Cultura:

- Artes Escénicas
- Artes Visuales
- Audiovisual y Multimedia
- Libro y Prensa
- Música
- Patrimonio Cultural

Creatividad:

- Arquitectura
- Artesanía
- Diseño
- Gastronomía Creativa
- Industrias de la Lengua
- Moda
- Publicidad
- Videojuegos

Podrán participar profesionales o empresas independientemente de su antigüedad o dimensión, desde estudios emergentes hasta empresas consolidadas, siempre que:

- Estén dadas de alta en un epígrafe de actividad vinculado al sector cultural o creativo.
- El proyecto tenga aplicación directa en su actividad profesional.

➔ Zer proiektu motarekin parte har dezakezu?

Proiektu guztiek:

➔ Kooperatiboak izan behar dute

Gutxienez bi bazkide izan behar dituzte: ikastegi akademikoa (ikaslea eta tutorea) eta enpresa/profesionala. Ikaslearen proiektuak izango ditu koordinazio akademikoa eta enpresaren zuzendaritza edo babesa.

➔ Aplikazio zuzena izango dute enpresan

Proiektuak lagunduko du enpresaren edo profesionalaren prozesuak, produktuak edo zerbitzuak hobetzen.

Emaitzak balio akademikoa izango du eta hainbat modutan gauzatu ahal izango da:

- Gomendio metodologikoak
- Prototipo baten diseinua
- Dibulgazio-piezak
- Material pedagogikoa

➔ Uneko urtean egin beharko dira

2025/26 edo 2026/27 ikasturteetan amaituko diren lanetarako zabalik.

✦ Kontuan izan...

- Bazkide profesional bat 2 projektutan aritu ahal izango da gehienez.
- Elkarrekin edo klusterrak ezin izango dira entitate eskatzaileak, baina laguntzaile gisa parte hartu ahal izango dute enpresek edo profesionalak gidatutako proiektuetan.
- Ez da finantzatuko merkatuarekin zuzenean lehiatuko den zerbitzurik, ohiko marketin kanpainarik edo enpresaren ohiko jarduerarik.
- Aurkeztutako proiektuan beharrezkoa bada kanpoko zerbitzu espezifikoak kontratatzea, proiektuaren lanen osagarri, behar bezala justifikatu beharko dira eta ez dira izango proiektuaren xede nagusia.
- Gradu edo master amaierako lana egin bada deialdia ebatzi aurretik eta ikaslea egresatua bada, tutoretza akreditatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko da eskaerarekin batera.

➔ ¿Con qué tipo de proyecto puedes participar?

Todos los proyectos deben:

➔ Ser cooperativos

Contar con al menos dos entidades socias: el centro académico (estudiante y tutor/a) y la empresa o profesional. La estudiante desarrolla el proyecto bajo coordinación académica y dirección o acompañamiento de la empresa.

➔ Tener aplicación directa en la empresa

El proyecto deberá contribuir a mejorar procesos, productos o servicios de la empresa o profesional.

El resultado será un trabajo de validez académica que podrá materializarse, por ejemplo, en:

- Recomendaciones metodológicas
- Diseño de prototipo
- Piezas de divulgación
- Material pedagógico

➔ Realizarse en el año en curso

Abierta a trabajos que concluyan en los cursos académicos 2025/26 o 2026/27.

* Para tener en cuenta...

- Una misma socia profesional podrá participar en un máximo de 2 proyectos.
- Las asociaciones o clústeres no podrán presentarse como entidad solicitante, aunque sí podrán participar como apoyo en proyectos liderados por empresas o profesionales.
- No se financiarán servicios que compitan directamente con el mercado, campañas ordinarias de marketing o actividades habituales de la empresa.
- Si el proyecto presentado requiere contratar servicios externos específicos, complementarios de las tareas, deberán justificarse adecuadamente y no podrán constituir el objeto principal del proyecto.
- En caso de que el Trabajo de Fin de Grado o de Máster se haya realizado con anterioridad a la resolución de la convocatoria y la persona estudiante tenga la condición de egresada, deberá aportarse, junto con la solicitud, un justificante que acredite la tutorización.

➔ Zer finantzaketa jasoko duzu?

Zure proiektuak **4.000 euro** jasoko ditu gehienez.

Eta, Euskadiko bazkideez gain, **proiektuak kolaboratzaileak baditu Nafarroan edo Akitania Berrian, 1.500 euro** gehiago jaso ahal izango ditu.

Zertan erabiliko da laguntza?

- Proiektua garatzen ari den ikaslearen dedikazioa (aurrekontuaren %40 gutxienez).
- Enpresatik proiektua koordinatuko duten pertsonen dedikazioa (aurrekontuaren %30 gehienez).
- Irakaskuntza tutoretzarako partida bat ere ezarri ahal izango da, bazkideen artean adostuz gero, aurretik aipatutako ehunekoak kontuan hartuta.
- Laguntza erabiliko da proiektuaren garapenak eragindako gastuak ordaintzeko: joan-etorriak, materialak eta zerbitzu osagarri espezifikoak, zabalkunde gastuak barne.

* Kontuan izan...

- Finantzaketak hartu ahal izango du eskatutako guztizkoa edo ehuneko bat, lortutako puntuazioaren arabera.
- Bigarren urtez jarraian onuradun izango diren proiektuen kasuan, laguntza izango da aurrekontu osoaren %80rako gehienez.
- Enpresa proiektuaren kudeaketa ekonomikoaz eta justifikazioaz arduratuko da.
- Gastu guztiak izango dira proiektua gauzatzeko aldikoak eta %100 akreditatu beharko dira, justifikatzeko unean.

➔ ¿Qué financiación recibirás?

Tu proyecto podrá recibir un máximo de **4.000 euros**.

Y, si además de las entidades socias de Euskadi, **tu proyecto cuenta con colaboradoras de Navarra o Nueva Aquitania, podrá recibir hasta 1.500 euros** adicionales.

¿A qué contribuye esta ayuda?

La dedicación de la persona estudiante que desarrolla el proyecto (mínimo el 40 % del presupuesto).

La dedicación de las personas que coordinan el proyecto desde la empresa (máximo 30% del presupuesto).

Podrá haber una partida para la tutorización docente siempre que se acuerde entre las socias respetando los porcentajes mencionados anteriormente.

La ayuda cubrirá gastos derivados del desarrollo del proyecto: desplazamientos, materiales y servicios específicos complementarios, incluyendo los de difusión.

✳ Para tener en cuenta...

- La financiación podrá corresponder al total o a un porcentaje solicitado, según la puntuación obtenida.
- En el caso de proyectos que resulten beneficiarios por segundo año consecutivo, la ayuda podrá cubrir como máximo el 80% del presupuesto total.
- La empresa será responsable de la gestión económica y de la justificación del proyecto.
- Todos los gastos deberán corresponder al período de ejecución y acreditarse al 100 % en el momento de la justificación.

➔ Parte hartu

Sartu gure Gune+ plataforman* eta jarraitu zure hautagaitza aurkezteko urratsak: <https://gunedigital.eus>

Plataforma honen bidez:

- 1/ Erregistra zaitezke eta zure eskaera era kolaboratiboan sortu.
- 2/ Proiektu bazkideak bila ditzakezu komunitatean.
- 3/ Laguntza eska dezakezu eta aholkuak jaso, txataren bidez.
- 4/ Deialdiaren emaitzei buruzko jakinarazpenak jaso ditzakezu.

**Mezu guztiak zabalduko dira plataforma honen bidez.*

➔ Participa

Accede a nuestra plataforma Gune+* y sigue los pasos para presentar tu candidatura: <https://gunedigital.eus/>

Esta plataforma te permite:

- 1/ Registrarte y crear tu solicitud colaborativamente.
- 2/ Buscar socias de proyecto en la comunidad.
- 3/ Solicitar ayuda y recibir orientación a través del chat.
- 4/ Recibir notificaciones sobre el resultado de la convocatoria.

**Todas las comunicaciones se realizarán a través de esta plataforma.*

DATA GARRANTZITSUAK | FECHAS IMPORTANTES



➔ **Nola ebaluatuko dugu zure hautagaitza?** **¿Cómo evaluaremos tu candidatura?**

Zure proposamena aztertuko du hainbat diziplinako pertsonak osatutako batzorde batek, proiektuaren kalitatea eta garrantzia bermatzeko.

Kontuan izango dugu nola erantzuten diezun atal hauei:

- ➔ **Idearen garrantzia eta kalitatea. Gehienez 40 puntu**
 Proiektuaren balio erantsia, potentziala eta berrikuntza maila.
- ➔ **Lankidetzaren kalitatea. Gehienez 20 puntu**
 Ezagutzen eta esperientziaren arteko hibridazioa, erantzun berritzaileak sortzeko.
- ➔ **Proiektuaren garapena eta inplementazioa. Gehienez 20 puntu**
 Helburuen, metodologiaren, aurrekontuaren eta inpaktu neurketaren arteko koherentzia.
- ➔ **Konpromiso soziala. Gehienez 10 puntu**
 Desafio sozialei, teknologikoei, ekonomikoei eta ingurumen arlokoiei erantzuteko ekarpena.
- ➔ **Komunikazioa eta zabalkundea. Gehienez 10 puntu**
 Emaitzak zabaltzeko eta euskara sustatzeko proposamena.

Tu propuesta será evaluada por un comité integrado por personas de distintas disciplinas, para garantizar la calidad y la relevancia del proyecto.

Tendremos en cuenta cómo respondes a los siguientes apartados:

- ➔ **Relevancia y calidad de la idea. Hasta 40 puntos**
 Valor añadido del proyecto, potencial y grado de innovación.
- ➔ **Calidad de la colaboración. Hasta 20 puntos**
 Hibridación de conocimientos y experiencia para generar resultados innovadores.
- ➔ **Desarrollo e implementación del proyecto. Hasta 20 puntos**
 Coherencia de objetivos, metodología, presupuesto y medición del impacto.
- ➔ **Compromiso social. Hasta 10 puntos**
 Contribución para responder a retos sociales, tecnológicos, económicos o ambientales.
- ➔ **Comunicación y difusión. Hasta 10 puntos**
 Propuesta para la difusión de resultados y la promoción del euskera.

➔ Proposamen arrakastatsu baten top 10

- 1** Zure proiektu taldeak mistoa izan beharko du: bi erakunde bazkideren lankidetzatik abiatuko da (bazkide akademikoa eta enpresariala).
- 2** Proiektuaren enpresa bazkide pribatua izango da eta parte-hartze publikoa izanez gero, %50etik beherakoa izango da.
- 3** Zure proiektuak balio erantsi bat emango dio profesionalari edo enpresari (haren jarduera nagusitik edo ohiko azpikontratazio batetik harago doa).
- 4** Ideia original bat izango da, ez Konexioak programaren edizio honetan edo aurrekoetan aurkeztutako beste proiektu batzuen erreplika.
- 5** Zure proiektuak zerbait berria proposatuko du, berrikuntza bat prozesu, zerbitzu edo produktu batean. Horregatik, ekoizpen artistikoa, artisten egonaldiak edo ondare kontserbazioa proiektuaren testuingurua izan ahalko dira, baina ez helburu nagusia.
- 6** Aurrekontu orekatu bat izango du eta inplikaturako eragile guztien lana aitortuko du.
- 7** Edizio honetan aurkez dezakezu aurretik finantzaturako proiektu baten jarraipena. Proiektu bat bi ediziotan finantzatu ahal izango da gehienez.
- 8** Zure lantaldeak jakinarazpenak aktibatuta izango ditu <https://gunedigital.eus/> plataforman, eta mezuei erantzungo die, KSIgunek adierazitako epeetan.
- 9** Zure lantaldeak eskatuko zaion dokumentazio guztia aurkeztuko du, eta baldintza guztiak beteko ditu.
- 10** Zure proposamenak ebaluazio irizpideak beteko ditu, eta gutxienez 20 puntu lortuko ditu ideiaren garrantziaren eta kalitatearen atalean, eta gutxienez 65 puntu, puntuazio osoan.

→ El top 10 de una propuesta exitosa

- 1** Tu equipo de proyecto deberá ser mixto: partirá de la colaboración de dos entidades socias; la académica y la empresarial.
- 2** La socia empresarial deberá ser privada y en caso de tener participación pública, será inferior al 50%.
- 3** Tu proyecto tendrá aplicación en la persona profesional o empresa para aportarle un valor añadido (va más allá de su actividad principal o de una subcontratación ordinaria).
- 4** Será una idea original, y no una réplica de otros proyectos presentados en esta o anteriores ediciones de Konexioak.
- 5** Tu proyecto será novedoso y supondrá una innovación en un proceso, servicio o producto. Por eso, la producción artística, las residencias artísticas, o la conservación patrimonial podrán ser contexto para el proyecto, pero no su objetivo final.
- 6** Tendrá un presupuesto equilibrado y reconocerá la labor de todos los agentes implicados.
- 7** En esta edición puedes presentar la continuación de un proyecto anteriormente financiado. Un mismo proyecto podrá financiarse en un máximo de dos ediciones.
- 8** Tu equipo de trabajo tendrá activadas las notificaciones en <https://gunedigital.eus/> y responderá a los mensajes en los plazos indicados por KSIgune.
- 9** Tu equipo de trabajo aportará toda la documentación solicitada y se asegurará de cumplir todos los requisitos.
- 10** Tu propuesta responderá a los criterios de evaluación y obtendrá al menos 20 puntos en el apartado sobre relevancia y calidad de la idea, y al menos 65 puntos en la puntuación total.

➤ Zure proiektua hautatzen badugu, zer jakin behar duzu?

Honako hauek izango dira hurrengo urratsak:

- Proiektua hautatu dela jakinaraziko diegu bazkideei, plataformaren bidez, eta ofizialki iragarriko dugu gure webean.
- Proiektuaren bazkideek sinatuko duzue laguntza onartzearen dokumentua.
- Bazkide profesionalak jasoko du proiektua kudeatzeko emandako laguntzaren %60.
- Proiektuko bazkideek sinatuko duzue bi aldeak arautu eta babestuko dituen hezkuntza lankidetzarako hitzarmen bat.
- Proiektuaren jarraipenerako bilera indibidual bat egingo dugu, eta beste proiektuak ezagutuko dituzu.
- Proiektua amaitzean, hilabete izango duzue proiektuaren emaitzen txostena aurkezteko, <https://gunedigital.eus> webgunearen bidez.
- Dokumentazioa baloratuko dugu eta laguntzaren gainerako %40a ordainduko diogu bazkide profesionalari.

/ Proiektuan aurreikusten den edo unean gertatzen den edozein aldaketa garrantzitsu KSiguneri jakinarazi beharko zaio, haren egokitasuna aztertu eta, hala badagokio, onartzeko.

// Baldintzak betetzen ez badira, itzuli egin beharko da laguntza osoa edo zati bat.

➤ Si seleccionamos tu proyecto, ¿qué debes saber?

Así serán los siguientes pasos:

- Notificaremos a las socias del proyecto través de la plataforma y lo anunciaremos oficialmente en nuestra web.
- Las socias del proyecto firmaréis el documento de aceptación de la ayuda.
- La socia profesional recibirá el 60% de la ayuda concedida para su gestión.
- Las socias del proyecto firmaréis un convenio de cooperación educativa que regule y proteja a las dos partes.
- Haremos una reunión de seguimiento individual de proyecto y socializarás con los demás proyectos.
- Tras la finalización del proyecto, tendréis un mes para presentar el informe con los resultados a través de <https://gunedigital.eus>.
- Valoraremos la documentación, y abonaremos a la socia profesional el 40% restante de la ayuda.

/ Cualquier modificación sustancial del proyecto deberá comunicarse a KSigune, en el momento en que se prevea o suceda, para valorar su pertinencia y autorizarla si procede.

// El incumplimiento de las condiciones podrá dar lugar al reintegro total o parcial de la ayuda.

➔ Dena irakurri ostean, zalantzarik baduzu...

Zuri laguntzeko gaude. Idatzi ksigune@ksigune.eus helbidera.

➔ Y si después de haber leído todo, aún tienes dudas...

Estamos aquí para ayudarte. Escríbenos a ksigune@ksigune.eus.



Konexioak _Prest

ksigune

www.ksigune.eus

Jakin gehiago KSiguneri buruz

Abian jarri nahi ditugu zure ideiak. Harremanetan jarriko zaitugu pertsonekin, diziplinekin eta aukerekin, bultzada emateko zure proiektuari, babes, ikusgarritasun eta aliantza sendoekin.

Conoce más sobre KSigune

Ponemos tus ideas en acción. Te conectamos con personas, disciplinas y oportunidades para impulsar tu proyecto con apoyo, visibilidad y alianzas sólidas.